

# Klima-aldaketari buruzko narratiba berriak KSletatik: merezi duen etorkizun baten ikuspena

## 1. erronka globala

### Testuingurua

Mugimendu klimatikoa irudimen-krisi kolektibo bat pairatzen ari da. Klima-aldaketa gure begien aurrean bizkortzen ari den arren, ezer ez egitearen eta desinformazio etengabearen ondorioetan ardaztutako kontakizunei heltzen diegu.

Nola inspira eta mugiaraz ditzakegu mundu guztiko pertsonak borrokatzea merezi duen mundu baten irudiekin? Zer zeregin bete behar dute kulturaren eta sormenaren industriek (KSlek)? Baliteke istorio-multzo berri batek bulkada berri bat abiaraztea? Berrikuntza iraultzailerik sortuko da artistak zientzialariek eta neurozientzialariak ingeniariarekin elkarlanean aritzen direnean etorkizuna ikusteko dugun modua benetan aldatzeko?

Erronka global honen xedea zen elkarrizketa konstruktibo bat sustatzea, gure irudimena bidezko eta oparotasunezko etorkizun batera zabaltzeko moduari buruz eta inoiz ez bezalako ekintza kolektibo bat abiarazteko moduari buruz. Informazio gehiago eskuratzeko, deskargatu [txosten hau](#).

Saioa [EIT Climate KICek](#), berrikuntza klimatikorako Europako agentzia eta komunitate nagusiak, antolatu zuen.



## 1. Helburuak eta metodologia

Helburu orokorra bikoitza zen:

**1. Identifikatzea nola lagundu dezaketen KSISek ekintza klimatikoari buruzko narratiba positibo berriak sortzen.** Orain arte, pentsatu da froga zientifikoak nahikoak izango zirela ekintza sustatzeko. Begibistakoa da ez dela hala izan. Nola lagundu dezakete KSISek egoera hau aldatzen?

**2. KSISen eta berritzaile klimatikoen artean egon daitezkeen lankidetzak-aurerak identifikatzea.** Inork ez dauka ez erantzun zuzenik ez «irtenbide magikorik». Jarraitu beharreko bidea elkarlanean eraiki behar da, elkarte berritzaile eta iraunkorren bidez eta pertsonen benetako bizi-baldintzetan ardatzuta. Nola lor daiteke funtzionatzea?

**Erabilitako metodologia** EIT Climate KIC Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak aurkeztutako *sensemaking* («zentzua sortzea») ikuspegia izan zen. Erakunde horrek esperientzia luzea du ikuspegi hori Europa guztiko eta nazioarteko panoramako beste erakunde askorekin erabiltzean, bere eraldaketa-zentroaren bidez. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [esteka hau](#).

*Sensemaking* tresna bikaina da erronka konplexuei partaidetzazko eta egituratutako moduan heltzeko. Ikuspegi mekanizista tradizionalak arazo «zailtarako» aurrez zehaztutako irtenbideak bilatzen dituzte; *sensemaking* ikuspegiak, aldiz, aitortzen du ingurune «konplexuen» testuingurua etengabe eboluzionatzen ari dela eta behatzeko, hausnartzeko, aztertzeko, laburbiltzeko, ereduak bilatzeko eta pertzepzioak sortzeko prozesu kolektibo bat bideratzen du, adimena ekoizteko asmoz eta «ondorioak azkarregi ateratu» gabe erabakiak hartzeko bideak identifikatzeko asmoz.

Abiapuntua da egokitzapenaren eta lankidetzaren bidez aurrera egin daitekeela aitortzea. *Sensemaking* ikuspegia arrakastatsua da jendeari zenbait modutan egiten diolako dei eta erronka hobeto ulertzeko eta sormenezko irtenbideak proposatzeko biltzea dakarrelako.


Hortaz, parte-hartzaileak taldetan banatu ziren, ideiak eta etorkizunerako lankidetzak-aurerak sortzeko gogoeta kolektiboa sustatuz, KSISen aldaketaren eragile aktibo bihurtzeko 3 gairi dagokienez, alegia, KSISen zeregina klima-aldaketaren inguruko narratiba hiru eremutan aldatzeko:

- Zer jaten dugun

- Nola mugitzen garen
- Nola janzten garen

3 erronka horiek mahaien artean banatu ziren eta, hortaz, zenbait mahaik erronketako bati erantzun zioten eta dibertsifikatzeko eta emaitzak erkatzeko aukera izan zuten.

Berariazko metodologiak bi eztabaida iteratibotan oinarritu ziren, iceberg ereduari jarraituz (beheko irudian azaltzen da). Eredu horrek edozein bilketa-jardueraren edukia antolatzen laguntzen duen tresna sistemikoa da, kasu sakonagoak agerrarazteko balio duena. Kasu honetan, mahai-inguruetako ondorioak antolatzeko erabili zen.



Eztabaidak kokatzeko, parte-hartzaileei rol-joko bat esleitu zitzairen eta, hala, gaiei bi ikuspegitik heldu behar izan zieten:

- Herritar kontsumitzailearen ikuspegitik
- Industriaren eta enpresaren ikuspegitik

Parte-hartzaile bakoitzak narratiba zehatzei jarraitzeko hartu zuen rolari esker, erabat inplikatu ziren eta lan kolektiboa egituratzea lortu zen. Mahai bakoitzeko prozesua honela laburbil daiteke:

1. Mahai-inguruak: erregistroa eta rolen banaketa (15')
2. *Sensemaking*-saioa: narrazioa, entzutea, gogoeta eta eztabaida (45')
3. Ondorio zehatzak beste mahai-inguru batzuekin partekatzea eta jarraitu beharreko bidea zehaztea (30')

## 2. Zer jaten dugun

Parte-hartzaileek elikadurari buruzko gure eguneroko erabakiei eragiten dieten joerei, azpiko egiturei, eredu mentalei eta pentsamendu-paradigmei buruz gogoeta egin zuten. Jarraian, narratiba berriak nola sor litezkeen eta KSlek narratiba horiek sustatzeko zer zeregin bete lezaketen proposatu zuten.

Eztabaida kokatzeko eta talde bakoitzaren gogoetei laguntzeko, oinarritzko datu hauek eman ziren:

- Kalkulatu da elikagaien ekoizpenak % 70 egin behar duela gora 2050erako aurreikusitako biztanleria elikatzeko. Hala ere, gorakada horrek jasangarria izan behar du ingurumenaren degradazioa eta baliabideen agortzea minimizatzeko.
- Mundu guztian nahikoa elikagai ekoizten den arren, milioika pertsonak gosea eta malnutrizioa pairatzen dituzte. Kalkulatu da 2020an mundu guztian 811 milioi pertsonak zutela desnutrizioa, gehienek garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- Egungo elikadura-ereduek ingurumenaren degradazioa dakarte, deforestazioa, biodibertsitate-galera, uraren kutsadura eta berotegi-efektuko gasen isuriak barne. Animalia-jatorriko elikagaien ekoizpenak, batez ere behi-aziendaren haragiaren eta arkume-haragiaren ekoizpenak, baliabide ugari kontsumitzen ditu eta kaltegarria da ingurumenarentzat. Landareetan oinarrituagoak dauden dietetarako trantsizioa egitea eta nekazaritza-praktika jasangarriak erabiltzea lagungarria izan daiteke ingurumen-inpaktu horiek arintzeko.
- Elikagaietako mantenugaien murrizketa: azterketa batzuen arabera, baliteke elikagaietako mantenugai esentzial jakin batzuk, hala nola bitaminak eta mineralak, murrizten ari izatea lurzoruen pobretzearen, nekazaritza-praktiken eta elikagaiak prozesatzeko metodoen ondorioz. Mantenugai-kantitate egokia hartzen dela bermatzeko ezinbestekoa da bai elikagaien ekoizpenaren kalitatean bai dietaren aniztasunean jartzea arreta.
- Nekazaritzak berotegi-efektuko gasen isurien % 11 inguru sortzen ditu.
- Abeltzaintza-ekoizpeneko prozesuak dira sektore honetako igorle nagusia, 4000 milioi tona CO<sub>2</sub> sortu baitzuten 2018an, eta deforestazio orokortua eragiten dute.
- Elikaduraren txikizkako merkataritzaren sektoreak —zeinak kontsumitzaileei elikagaiak saltzen dizkieten merkaturak, supermerkatuen eta jatetxeen jarduerak hartzen baititu barne— sortzen dituen isuri gehienak xahututako elikagaietatik eta hondakin plastikoetatik datoz.
- Xahututako elikagaiek bakarrik berotegi-efektuko gasen munduko isurien % 8 eta % 10 bitartean eragiten dituzte. EBN 57 milioi tona elikagai xahutzen dira urtean: 127 kg biztanle bakoitzeko.

## *Gertaerak – Joerak – Azpiko egiturak – Eredu mentalak*

Egungo sistemak «eskari errazaren» kulturaren alde egiten du (denbora, dirua, eragozpenak eta abar aurreztu nahi ditugu, elikatzeko dugun modua lana eta familia bateragarri egitearen menpe dago gero eta nabariago eta horretan dugun efizientzia gero eta txikiagoa da). Hortaz, dena gauza guztiak leku bakar batean dauden supermerkatuetan zentralizatzeko joera dago eta benetan kontsumitzen dugunari buruzko informazioa falta da. Zein da erosten ditugun produktuen jatorria? Zein dira sasoiko produktuak? Nori ordaintzen diogu benetan gure erosketekin edo nork ateratzen die onura?

Horrek zenbait joerari ematen die leku, adibidez, balio-aldaketari: arreta handiegia jartzen da arrakastan —«arrakasta» bera zer den ere argi eduki gabe— eta «gure jateko eraren» eta «gure izaeraren» arteko lotura ezabatu ohi dugu. «Azkartasunaren kulturaren» elementua ere badago: «osasuntsu eta patxadaz jateko modua» iraganarekin lotzen dugu eta aurreko belaunaldiekiko eta haien ezagutza eta ikaskuntzekiko lotura galdu dugu.

Horrek, berriz, errealitate instituzionalizatu bat ekarri du, non botere gehiegi esku gutxiagotan baitago (banatzaile, hornitzaile, txikizkari eta ontziratzaile handien esku), baita «dena leku guztietan etaaldi berean» egotea sustatzen duen kultura orokor bat ere: produktu-mota guztiak leku guztietan eta urte osoan daude eskuragarri eta salgai. Azpiko eredu mentalek ez dute hori aldatzeko biderik ematen, aberastasuna galtzeko beldur orokortuagatik eta lehiakortasun-kultura indartsuegiagatik. Ez dago «kontsumo planifikaturik».

## Paradigma berri baterako proposamenak

Paradigma berriak gehiago partekatzeko gaitasuna eta nahia hartu beharko lituzke oinarri: «ikusmenaren aldetik perfektuak» izan beharrik ez duten tokiko elikagai jasagarrien aldeko bira kulturala, hezkuntza-erlorkia eta etikoa, non elikagaien xahupena moralaren ikuspegitik onartezintzat jotzen den. Homologo-taldeetan jardunbide egokiak eta jokabide-eredu berriak ezarri eta trukatzeko lan egin behar dugu, baita lehia-prozesuak beste modu batean definitzeko ere.

### 3. Nola mugitzen garen

Parte-hartzaileek eguneroko mugikortasunari buruzko gure erabakiei eragiten dieten joerei, azpiko egiturei, eredu mentalei eta pentsamendu-paradigmei buruz gogoeta egin zuten. Jarraian, narratiba berriak nola sor litezkeen eta KSlek narratiba horiek sustatzeko zer zeregin bete lezaketen proposatu zuten.

Eztabaida kokatzeko eta talde bakoitzaren gogoetei laguntzeko, oinarrizko datu hauek eman ziren:

- Garraioak berotegi-efektuko gasen isurien bosten bat sortzen du gutxi gorabehera.
- % 40 inguru salgaien garraiotik dator eta gainerakoa (% 60), berriz, bidaiarien bidaietatik, batez ere aireko garraiotik.
- Urbanizazio azkarrak hirien barruko garraio-eskariak gora egitea eragin du, eta horrek auto-ilarak, airearen kutsadura eta bizi-kalitatearen okerragotzea dakartza.
- Hiri-garraioaren erronkei aurre egiteko ezinbestekoa da garraio publikoko sistema eraginkorrek edukitzea eta oinezko, bizikletazko eta auto partekatuzko joan-etorriak sustatzen dituzten politikak ezartzea.
- Irisgarritasuna eta ekitatea: komunitate askok, batez ere landako eta urruneko eremuetan, ez daukate garraio-zerbitzu fidagarri eta eskuragarrietarako sarbiderik, eta horrek ekonomian eta gizartean parte hartzeko aukerak mugatzen dizkie. Garraiorako ekitatezko sarbidea bermatzea funtsezkoa da gizarte-inklusioa sustatzeko eta desperekotasunak murrizteko.
- Konektagarritasun intermodala: garraiobide guztien arteko konektagarritasuna (adibidez, trenaren, errepide bidezko garraioaren, aireko garraioaren eta itsas garraioaren artekoa) handitzeak eraginkortasuna hobetu eta kostuak murriztu ditzake. Hala ere, hausturarik gabeko konektagarritasun intermodal bat lortzeko ezinbestekoa da arauketaren arloko oztopoak, oztopo teknikoak eta oztopo logistikoak gainditzea.
- Bidaiatzeko moduek bizi-baldintzen eta bizimoduen arteko desberdintasun izugarriak agerrarazten dituzte. Herritar pobreenetako askok ez dute garraio azkar eta segururako sarbiderik, eta horrek hezkuntza eta lan esanguratsua izateko aukerak mugatzen dizkie; klase ertain aberatsak eta herritar dirudunek, berriz, murrizketarik gabe bidaiatzen dute, baina ingurumenarentzat kaltegarriena den moduan, alegia, hegazkinez, eta horrek karbono dioxidoko isuri-kantitate itzelak sortzen ditu.



## *Gertaerak – Joerak – Azpiko egiturak – Eredu mentalak*

Gure kulturen, automobil bat edukitzea «bizimodu» bihurtu da (edukitzea ez ezik, besteei azkarragoa eta garestiagoa dela erakustea ere). Garraio-sareak askotan eraginkorrak ez izateak indibidualismo hori berresten laguntzen du. Horrek agerian jartzen ditu egungo pentsamenduaren paradigmatik, zeinetan berehalako saria lehenesten baita.

Horrek dakartzan joeretan, denak azkarra izan behar du (lehiakortasunaren kultura) eta distantzia fisikoa ez da jada gu itxaronarazteko «aitzakia». Testuinguru horretan, erosotasuna nahiago da bizimodu osasungarria baino, ez dago negoziatorako lekurik eta publizitateak ezartzen ditu arauak, zeinetan denbora aurrezteka baita onura nagusia.

## *Paradigma berri baterako proposamenak*

Jardunbide egokien sariak ikusgai egiteko modua aurkitu behar dugu eta, horretarako, heuristika aplikatzea aukera egokia izan liteke, ez baitago «irtenbide idealik». Garraio publikoko politikak eta hezkuntza ere jo ziren paradigma berriaren buru-hausgarriaren zatitzat, aldaketa berritzaileak lortzeko legeriarekin batera.

## 4. Zer arropa janzten dugun

Parte-hartzaileek eremu honi buruzko gure eguneroko erabakiei eragiten dieten joerei, azpiko egiturei, eredu mentaleti eta pentsamendu-paradigmei buruz gogoeta egin zuten. Jarraian, narratiba berriak nola sor litezkeen eta KSlek narratiba horiek sustatzeko zer zeregin bete lezaketen proposatu zuten.

Eztabaida kokatzeko eta talde bakoitzaren gogoetei laguntzeko, oinarrizko datu hauek eman ziren:

- Moda munduko hirugarren industria kutsagarriena da, urteko gure karbono-aztarnaren % 10 inguru sortzen baitu (nazioarteko hegaldi guztiek eta itsas garraioak batera sortzen dutena baino gehiago).

- Berotegi-efektuko gasen isuriak ez dira modaren sektorearen arazo bakarra; horrez gain, bost milioi pertsonak urtean behar duten ur-kantitatearen baliokidea kontsumitzen du eta milioika tona plastiko eta bestelako hondakin sortzen ditu.
- Arropa-ekoizpena gutxi gorabehera bikoiztu egin da azken 15 urteetan, klase ertaineko biztanleria mundu osoan haztearen ondorioz eta ekonomia garatuetan *per capita* salmenten kopuruak gora egitearen ondorioz.
- Aurreikusten da munduko BPGd-a % 400 handituko dela hemendik 2050era arte, eta horrek jantzien eskaria are handiagoa izatea ekarriko du.
- Txosten baten arabera, modaren industriak ingurumenean eta gizartean sortutako arazoei heltzeak 192.000 milioi dolarreko onura globala ekarriko lioke munduko ekonomiari hemendik 2030era arte.
- Goizegi baztertutako arroparen urteko balioa 400.000 milioi dolar baino gehiago da.
- Arroparen % 80 18 urtetik 24 urtera arteko emakume gazteek egiten dute.
- Bangladeshen, jantzigintzako langileek (emakumeak gehienbat) 96 dolar inguru irabazten dituzte hilabetean. Gobernuak soldata-batzordeak iradoki zuen jantzigintzako langile batek kopuru hori bider 3,5 behar duela «bizitza duin» bat izateko, oinarritzko zerbitzuekin.
- Ameriketako Estatu Batuetako Lan Sailak 2018an egindako txosten baten arabera, nahitaezko eta haurren lanaren frogak aurkitu dira herrialde hauetako modaren industrian: Argentina, Bangladesh, Brasil, Txina, India, Indonesia, Filipinak, Turkia eta Vietnam, besteak beste.



## *Gertaerak – Joerak – Azpiko egiturak – Eredu mentalak*

«Mundu azkar» batean bizi gara eta horrek «moda azkarra» ere badakar: arropa berria oso maiz erosten dugu (batez ere «mendebaldeko mundu» deritzogun honetan) eta horrek kutsadura-mailak altuak izatea, (ehunak ekoizteko) ur asko erabiltzea eta hondakin ugari sortzea dakar, gure jantzietako asko ez baitira birziklatzen. Ahaleginak egiten ari dira arropa birziklatzeari eta materialak berritzeari dagokionez, baina, parte-hartzaileen ustez, baliteke jarduera horiek askotan «ekopostureoko» praktikekin lotuta egotea. Gainera, azkenaldi honetan ikusgaiago bihurtzen ari diren arren, modaren industriak klima-aldaketan dituen efektuak ezezagunak dira oraindik ere jende gehienarentzat.

Egungo joerak, hala nola «moda motela», gero eta hedatuagoak dira, batez ere gazteen artean. Hala ere, joera horiek oraindik azaleratzen ari dira: zaila da moda «azkarretik» moda «motelera» pasatzea klima-aldaketaren, ur-eskasiaren eta kutsaduraren efektuak deuseztatzeko behar bezain azkar. Gainera, jendeak arropa berria erosi ohi du daukan arropa konpondu beharrean.

Badaude zenbait arrazoi «arropa erostean dugun jokabidearekin» lotutako portaera horietarako:

- Prezioa: askotan merkeagoa da arropa berria erostea erabilia erostea baino; bigarren eskuko arropa garestia izan ohi da eskaintzen denarekin erkatuta (baliteke hori bigarren eskuko arropa *vintagetzat* jotzeko posizionamenduarekin lotuta egotea).
- Gizartearen onarpenarekin lotutako eguneroko azturak: gizarte-arauek behartzen gaituzte (a) arropa maizegi garbitzera (eta horrek arropa narriatzea dakar); (b) «berria dirudien» arropa eramatera, hau da, arropako zuloak (erabileraren ondorioz sortzen direnak) ez dira onargarriak lan-inguruneetan.
- «Erabili eta botatzeko» kultura «konponketaren kulturaren» ordeztu: arropa berria «aberastasuna erakustearekin» lotuta dago, hots, gure egungo gizarteko balio nagusietako batekin. Horrek arropa berria eroste aldera «botatzeko» kultura sustatzen du, «konponketaren kulturaren» ordeztu, zeina araua baitzen iraganean, beharra dela eta. «Konponketaren kultura» ez dago modan gaur egun.
- Bezero-mundu batean bizi gara, ez fabrikatzaile-mundu batean. Kontsumitzaile-pentsamolde batean murgilduta gaude, sortzaile-pentsamoldean murgilduta egon beharrean.
- Konponketak egiteko trebetasunak dituzten pertsonak eta ekipamenduetarako sarbidea falta dira: «arroparen konponketa» azken urteotan aurrera egiten hasi den arren, konponketak egiteko trebetasunak dituzten pertsonak ez daude hain presente. Gainera, gure bizimodu azkarrak eta gehienok dugun denbora-faltak ez dute tokirik uzten «konpontzea» ahalbidetzen diguten trebetasunak ikasteko. Horrez gain, konponketak egiteko ekipamenduetarako (adibidez, josteko makineterako) sarbidea zaila edo garestia izan ohi da.
- Nortasuna: arropa munduari gure nortasuna erakustearekin lotu dugu. Arropa oso lotuta dago desberdinak izateko nahiarekin, gure bakantasuna erakusteko nahiarekin (*prêt-à-porter*) eta are gizarte-klasea eta pribilegioak erakusteko nahiarekin.
- Natura ez ezagutzea eta harekin harreman esturik ez edukitzea: askotan ez dakigu zer material dauden gure arropan eta zer-nolako inpaktua duten gure hurbileko ingurumenean. Gainera, natura kanpoko zerbait dela pentsatzen dugu, geure zati ez den zerbait.

## *Paradigma berri baterako proposamenak*

Parte-hartzaileek nabarmendu zuten «partekatzearen» aldeko kultura bat ezarri behar dela praktika existentzial gisa. Adibidez, haurtxoentzako arroparekin aplikatzen dugun portaera-eredua aipatu zuten; horren arabera, badago gurasoen artean partekatzeiko kultura oso nabarmen bat, baina hazten direnean (garenean) desagertu edo desegiten da.

Era berean, «konponketengatiko harrotasunean» oinarritutako paradigma berri batek erabat alda litzake gure portaerak, arropa bera denbora luzeagoan eramateaz eta iraunkorrak diren ehun onak erostean harro sentiaraziz.

Hezkuntza eta kultura funtsezkotzat jotzen dira aldaketa-prozesuan; beraz, arropa, bota beharrean, zaindu eta konpontzen dugun «bigarren azaltzat» har daiteke. Jardunbide berriak babestu beharko lirateke, adibidez, arropa hain maiz ez garbitzea, gure arroparekiko jakin-mina sustatzea eta konponketetarako eta ehunak berritzeko ditugun trebetasunak hobetzea. *Cool* kontzeptua berrasmatea lagungarria izan liteke aldaketa kultural horretarako: adibidez, iraunkorragoa den eta egunero garbitu berria ez dirudien arropa edukitzeari esatea *cool*.

Arropa gure nortasun pertsonalarekin lotzen dugun modua aldatzea ere lagungarria izan liteke: geure burua benetan eta sakonki «ezagutzeko» eta «ikusteko» beste modurik aurki dezakegu, daramagun arroparekin zerikusirik ez duenik? Hori gizarte inklusiboago batekin ere lot liteke, zeinean arropa ez den ez klasearen ez nortasunaren adierazgarri.



Nola susta dezakegu moda azkarreko arropatik deskonektatuta dagoen irudi kolektibo berri bat? Parte-hartzaileek nabarmendu zuten KSlek zeregin garrantzitsua bete lezakeela berrirudikatzean, beharbada komunikabideen eta marken laguntzarekin, egungo pertzepzioak aldatzeko eta *cool* kontzeptua mundu jasangarriago eta bidezkoago batean pentsatuz berrasmatzeko.



## 5. Ondorioak

### *a. Metodoaren erabilgarritasuna*

Rol-jokoak istorioen narrazioarekin konbinatzea esanahia sortzeko eta bai aztertutako hiru eremuen azaleko ezaugarrien bai ezaugarri sistemikoen ulermenean sakontzeko oso modu erakargarria izan zen.

Taldeko parte-hartzaile bakoitzari rol bat esleituta eta istorioak entzutearen garrantzia azpimarratuta, ariketan parte hartu zutenen ezagutzak, esperientzia eta testuinguru zehatzak ateratzea lortu zen eta modaren, elikaduraren eta garraioaren sektoreetan sortzen diren fenomenoaren azalpen zehatz bat eraikitzeko erabili ziren. Arloko aditurik egon ez arren, guztiok kontsumitzaile gogoetatsu gisa izan ditugun esperientziak behar bezain zehatzak izan ziren iceberg ereduarekin maila sakonagoetara heltzeko, eskaintzaren eta eskariaren ikuspegiak konbinatuz eta hartzen dituzten formen arrazoiak ulertzen saiatuz.

Taldeetako bat ere ez zen gelditu gainazalaren beraren deskribapenaren mailan (hots, pertsonak eta enpresek zer egiten duten erakusten duen mailan). Guztietan, gure portaerek eta enpresa-ereduek osatzen duten begitzaren azpiko balioak eta paradigmak izan ziren eztabaidaren ardatza: nola sortzen diren «azkartasuna» behar aldakorrek estaltzerakoan nagusi izatetik.

### *b. Zer kontzeptu eta balio berri behar ditugu?*

Hiru taldeek jarri zuten arreta eraginkortasunaren, onuraren, gogobetetasunaren eta jabetzaren hizkeraren nagusitasunaren ondoriozko antzeko mekanismoetan. Badirudi narratiba berrien bilaketak kontzeptu berri eta birdefinituetan ardatzuta egon behar duela:

- **Denbora.** Gaur egun, gure jardueraren zati handi baten oinarria da —batez ere kontsumitzaile gisa— gure eskubide nagusia gogobetetasun-indize azkar bat dela. Banaketa eta salmentako

sistema guztiek batez ere oso azkarrak izan behar dute, eta zerbitzu-sistemek ere bai (digitalak barne). Horrek erabat aldatzen du gure kontsumoaren egitura psikologiko eta materiala: gero eta gauza eta esperientzia gehiago behar ditugu gero eta goseago den eta barreiatuagoa dagoen sistema kognitibo bat gogobetetzeko.

Gauzak eta esperientziak oso azkar aspertzen gaituzte, haien erakargarritasunaren zikloa laburra da eta gure gogobetetasuna azalekoa eta aldi baterakoa da. Sormenaren sektorearentzat oso espazio garrantzitsua izan daiteke zenbait ezaugarriekin lotutako beharrak betetzeko modu berriak asmatzea, adibidez, pazientziarekin («sasoikoa den fruta bakarrik jango dut»), adintsutasunarekin («zenbait urte dirauten gauzez harro nago») eta denbora-muga luzearekin («ezin gara orain oporretan joan, beste kontinente baterako bidaiia bat planeatuko dugu eta sortutako karbono-aztarna nola konpentsatuko den kalkulatu dugu»).

- **Partekatu beharrean, eduki.** Aztertutako hiru sektoreetarako kategoria kritikoak dira, baina bakoitzak berrantolatzeke dituen bideak eta ereduak pixka bat desberdinak dira. Modaren arloan kalitate onekoa den eta ingurumenari kalte handirik egiten ez dion arroparen ekoizpenerako eredu erabilgarriak eraikitzeke erabakiak pentsamolde-aldaketa bat eskatuko luke, arropa denbora luzean edukitzea ona izateari dagokionez ez ezik, beste pertsona batzuekin trukatu eta hala esperientzia bera dinamizatu behar izateari dagokionez ere: «Ez nau aspertzen itxura bera edukitzeak, nire arropa beste pertsonen artean dabilelako». Garraio publikoaren eredia, zeina kostuak eta bidaiia-esperientzia partekatzean oinarrituta baitago, zabaltzeak eta garraiobideen (autoen) «jabetza» ahalik eta gehien murrizteak garraio publikoaren eskuragarritasunean eta fidagarritasunean inbertitzea eskatuko luke, baita taldean bidaiatzean lortzen ditugun balio gehigarri anitzetan ere. Istorioen eta irudien bidez partekatzearen, erabilera kolektiboaren eta «edukitzeke konpultsioetik» askatzearen balioak babestea da gure sektorearen zeregin garrantzitsuenetako bat.
- **Nortasuna eta zoriontasuna.** Gure ariketan sortutako istorioetan gai hau errepikatzen zen: betetasunaren eta zoriontasunaren bilaketa bizia, kontsumo bizian eta oso lan gogorrean oinarrituta dauden, denbora eta energia ugari eskatzen duten eta, beraz, zoriontasuna oso azkar (berehalako zoriontasuna) bilatzera behartzen gaituzten eredu bidezkoa. Lan-eredu horrek eskatzen digun sakrifizioen eskala dela eta, nortasun-zentzu bat (nor naizen eta nolakoa naizen azaltzeko zentzua) eraikitzeke oinarritzeko materiala bihurtzen dira (kontsumo-ereduez aparte).

Hemen jada ikus dezakegu hirugarren arlo hau aurreko biekin lotuta dagoela eta horiek aldatzeak automatikoki ahalbidetu beharko lukeela nortasuna sortzeko moduak aldatzea, ez lan akigarri batean eta kontsumo bizi batean inbertituz, baizik eta denbora-muga luzatu baten ondoriozko gogoeta kolektibo baten bidez. Komunitate gisa egin dezakegu hori, besteak (pertsonak eta espezieak) errespetatuz gure beharrak betetzeko. Zona jakin bateko egoiliarra izatearen ondoriozko nortasuna oinarri hartuta, lurra eta elikagaiak ekoizten dituzten pertsonak errespetatzen ditut, haien lana ulertzen dut eta badakit nolakoa den; horregatik, hurbilen daukadana jaten dut eta horren truke pixka bat gehiago ordaintzeko prest nago. Tokiko nekazaria guztion onaren (lurraren, paisaiaren, landare-ekosistemaren eta animalia-ekosistemaren) zaindaritzat ere tratatzen duelako. Tokiko elikagaiak nola lantzen diren ikusteko denbora (!) eta janaria neure buruarentzat prestatzeko denbora aurkitzen du.

Gauza bera esan daiteke bidaiez, (ingurua edo beste pertsona batzuk) ezagutzeko modu bat izan baitaitezke, ahalik eta azkarren mugitzeko modua izan beharrean. Talde batek argi eta garbi adierazi zuen klima-krisi honetan ezin garela mugatu planeta-mugen auzirik ez zegoen garai batean eman zizkiguten nortasun-ereduak eta zoriontasun-ereduak birsortzera. Batez ere, badakigulako ez direla eraginkorrak (ez bakarrik planetarentzat: guretzat ere ez). Sormen-sektorearen zeregina da modu koherentean zoriontasun eta gogobetetasun kolektiboaren aldeko askotariko jarduerak egitea.